



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -

Data eta lekua:	2016ko urtarrilaren 26an Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarraren Gela
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00-20:30

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARITZA: Miren Azkarate_EAJ-PNV (2016 Hiriburutzako, Kulturako, Euskarako eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkaritza)

PSE-EE

EH BILDU

IRABAZI

EAJ

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

BAGERA ELKARTEA

BATZEN

BIZARRAIN ELKARTEA

URTXINTXA

BERRITZEGUNEA

SSHOPS DONOSTIA (MERKATARITZA)

EHU

GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA

REALA*

KUTXABANK*

EUSKADIKO KUTXA*

*Euskararen Aholku Kontseiluan parte hartzeko eskaera egin berri zutenez, lehen puntuaren ostean parte hartu zuten bileran, behin kide bezala onartuak izan eta gero.

Euskara Zerbitzuaren langileak:

Edurne Otamendi (Zerbitzu burua)

Alex Aisa (Atal burua)

EZ ZIREN BERTARATU:

PPko ORDEZKARIA

ULIAKO AUZO ELKARTEA

LABeko ORDEZKARIA

AEKko ORDEZKARIA (ezin etorria adierazi du)

LURDES AUZMENDI (ezin etorria adierazi du)

FELIPE JUARISTI



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

1.- Aurreko bileraren akta onartzea

Aurreko akta onartu da.

2.- Euskararen Kontseilu Sektorialean parte hartzeko eskaera egin duten entitateen ordezkaritza onartzea

Lehendakariak adierazi du hiru kolektibo berrik eskatu dutela Euskararen Kontseilu Sektorialean parte hartzea: Real Sociedad Fundazioak eta Kutxabank eta Euskadiko Kutxa finantza-entitateek. Idazkaritzak eranstean du aldeko txostena egin dela kasu guztietan. Hiru kolektibo horiek onartzea erabaki da eta kanpoan dauden ordezkariak deitu dira bileran parte har dezaten.

3.-Batzorde Iraunkorra eratzea

Saiora etorritako bakoitzak bere buruaren aurkezpena egin du.

Idazkariak azaldu du zein den Euskararen Kontseilu Sektorialaren egitekoa eta eraketa prozesuaren xehetasunei buruzko argibideak eman ditu. Ondoren, Batzorde Iraunkorra eratu behar dela gogoratu du eta egoeraren berri eman du. Batzorde Iraunkorrak lehendakaria, lehendakariordea eta beste lau kide izango ditu (Udal erroldako entitateen artean bi kide aukeratuko dira, eta gainerako kolektibo eta norbanakoen artean beste bi).

Lehendakaria (Miren Azkarate) eta lehendakariordea (Bagerako ordezkari Dani Goñi) aurreko kontseiluan izendatu ziren.

Beste lau kideei dagokienez, Udal erroldan ageri diren entitateen artetik, bi prest daude parte hartzeko: Urtxintxako ordezkaria (Maite Asensio) eta Batzeneko ordezkaria (Oier Basurko). Horiek izendatzea erabaki da aho batez.

Kolektibo eta norbanakoen artetik, hiru kidek agertu dute prestutasuna: Real Sociedad Fundazioko ordezkariak (Andoni Iraola), AEKko ordezkariak (Oihana San Jose) eta Lurdes Auzmendi norbanakoak. Azken bi hauek ezin etorria adierazi dute gaurko bilerara.

Realeko ordezkaria kideetako bat izatea aho batez onartu du Kontseiluak. Beste bi kideen artean berriz, iritzi desberdinak agertu dira: batzuen ustez, interesgarria litzateke AEK bezalako elkarte bat Batzorde Iraunkorrean izatea kontuan izanik euskalduntze-alfabetatzeak hizkuntzaren normalizazioan duen garrantzia. Beste batzuen ustez ordea, Lurdes Auzmendi egokiagoa litzateke kontuan hartuta AEK Batzen elkarteko kide dela eta Batzen ordezkatuta dagoela dagoeneko Batzorde Iraunkorrean.

Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko ordezkariari gonbita egin zaio bertan parte hartzeko baina berak 2007tik bertan izan dela eta jende berria beharrezkoa dela adierazi du.

Batzeneko ordezkariak adierazi du Dbus-eko ordezkari batek Euskararen Aholku Kontseiluan egon beharko lukeela, aurreko Euskararen Aholku Batzordean egon zen bezalaxe. Lehendakariak erantzun dio lan taldeetan parte hartzeko arazorik ez duela izango baina ezin dela kontseilu sektorialeko kide izan. Arautegiak argi uzten du udalaren egituraz kanpoko eragileek osatu behar dutela kontseilu sektoriala.

Gauzak horrela, EAJ/PNVko ordezkari Aitziber San Romanek bozketa egitea proposatu du laugarren kidea AEKko ordezkaria ala Lurdes Auzmendi izango den erabakitzeko eta lehendakariak proposamen horrekin aurrera egitea erabaki du. Paper zuriak banatu dira eta honako hau izan da emaitza:

- 8 boto Lurdes Auzmendiren alde



- 7 boto AEKko ordezkariaren alde

- Boto zuri bat

Hortaz, ondoko kideek osatuko dute Batzorde Iraunkorra: Miren Azkarate (lehendakaria), Dani Goñi (lehendakariordea), Oier Basurko (Batzeneko ordezkaria), Maite Asensio (Urtxintxako ordezkaria), Andoni Iraola (Real Sociedad Fundazioko ordezkaria) eta Lurdes Auzmendi norbanako gisa.

4.-2016ko ekintza plana aztertzea

Lehendakariak 2016ko ekintza planari buruzko xehetasunak eman ditu esparruz esparru, helburuak kontuan hartuta (ekintza plana alde zuzenetik helarazi zaie kontseiluko kide guztiei).

Kirol esparruari dagokionez, Euskara Zerbitzua hiriko 20 kirol elkarteren diagnostikoa egiten ari dela azaldu da eta EH Bildu taldeko ordezkariak 20 elkarte horiek zeintzuk diren jakin nahi du. Idazkariak informazio hori bidaltzeko konpromisoa hartu du.

Bagerako ordezkariak, bestalde, Realeko jokalarien erabilera publikoa oso garrantzitsua dela adierazi du. Gazteentzako eredu izanik, euskara ahalik eta gehien erabiltzea oso garrantzitsua dela adierazi du eta kezkaz ikusten duela, ETBn esaterako, ETB1erako bakarrik egiten dituztela adierazpenak euskaraz eta bigarren katean gazteleraz aritzen direla.

Realeko ordezkariak erantzun du hizkuntzaren erabilera zaintzen saiatzen direla eta Realak dituen eskola programetan euskara dakiten jokalariek parte hartzen dutela. Bestalde, Reala gaur egun 90 eskolatan ari da monitoreei formazioa ematen, ia dena euskaraz, eta Euskara Zerbitzua Añorgan aurrera eramaten ari den erabilera sustatzeko ekintza ezagutzeko interesa duela aitortu du.

Euskadiko Kutxaren ordezkariak eskola kirolaren garrantzia azpimarratu du eta horren aipamenik eta neurririk Plan Orokorrean ez egoteak faltan botatzen duela adierazi du. Euskara Zerbitzuko atal buruak adierazi du Gipuzkoako Foru Aldundia aztertzen ari dela Eskola Kirolaren gaia zenbait udalekin elkarlanean "Udalekin" izeneko egitasmoaren barruan. Horrez gain, euskararen erabilera klubetan gaiari ere heldu nahi zaio.

Realeko ordezkariak esan du Gipuzkoako Ikastetxeetako kirol-monitoreei dagokienez, egoera desberdinak daudela eta euskararen erabileran dauden hutsuneak, neurri handi batean, Donostiako taldeek dituztela. Donostiako kirol-monitoreea gaztea da, ikaslea edo ikasle ohia, gehienetan boluntarioa eta euskara dakiena baina erabileran huts egiten duena. Euskararen erabileraren gaia talde honekin lantzea eta baliabideak ematea garrantzitsua dela iruditzen zaio.

Eskola kirolari dagokionez, Realarentzat, heziketaren aldetik, eskola kirola garrantzitsua dela azpimarratu du. Ildo beretik esan du Gabonetan alebin mailako txapelketa antolatzen dela Zubietan Gipuzkoako 55 bat talderekin eta hor euskara nagusi dela. Hala ere, txapelketa horretan Donostiako taldeek erabiltzen dute euskara gutxien.

PSE-EEko ordezkariaren esanetan, ikasleen arteko euskara erabilerak lotura nabarmena du ikasleek eskolatik kanpo bizi duten errealitate linguistikoarekin. Horixe da Soziolinguistika Klusterrak aurrera eramandako "Arrue" izeneko proiektuaren ondorio nagusia. Ikerketa oso interesgarria dela adierazi du.

Berritzeguneko ordezkariak ere "Arrue" proiektuaren balioa nabarmendu du, bertan agerian uzten baita aisialdiaren (sare sozialak, kirola, eta abar) garrantzia eta eragina hizkuntzaren erabileran.



EHUko ordezkariak bere aldetik aipatu du gazteen erabilera landu beharreko gaia dela. Bere esanetan Donostia, Donostialdea eta Irungo gazteen gehiengoak ez du euskara erabiltzen unibertsitatean. Hori dela eta, gazteen erabilera sustatzeko neurriak faltan bota ditu 2016ko plangintzan. Idazkariak aipatu du gai garrantzitsua dela oso eta ekimen pilotu batzuk (ekolingua, mintzakuadrilla) martxan jarri direla duela gutxi. Gai honi buruz hitz egiteko unibertsitatearekin eta Foru Aldundiarekin biltzekotan dira estrategia partekatua aurrera eramateko.

EHBilduko ordezkariak Merkataritza egitasmoa zein auzoetan inplementatuko den galdetu du. Idazkariak erantzun du erabaki gabe dagoela oraindik baina aurrean bi mila bisita egingo direla guztira. Horietako batzuk, jarraipen-bisitak, dagoeneko ekintzan parte hartzen ari diren establezimenduetara egingo dira egitasmoa nola betetzen ari diren ikusteko. Gainerakoak, orain arte bisitatu ez diren establezimenduetara egingo dira.

Bestetik, EHBilduko ordezkariak galdetu du zein neurri hartuko dituen Udalak euskalduntzearen doakotasunerantz, modu progresiboan, iristeko, bere ustez konpromiso hori bere egin baitzuen Udalak. Lehendakariak erantzun du udal gobernuaren konpromisoa dela inor ezin dela euskara ikasi gabe geratu baliabide faltagatik. Zentzu horretan gaineratu du, Eusko Jaurlaritzak handitu egin duela zuzeneko diru laguntzetarako partida eta Udaleko Euskara Zerbitzuak erraztasun gehiago emango dituela diru laguntzak erdiesteko.

Bagerako ordezkariak azaldu du doakotasunaren gaia ez dagokiola Udalari, Foru Aldundiari edo Eusko Jaurlaritzari baizik. EHBilduko ordezkariak onartu du hori, baina adierazi du Jaurlaritzak edo Foru Aldundiak bide hori har dezaten lan egin behar duela Udalak.

Irabazi alderdiko ordezkariak adierazi du laguntza guztia eman behar zaiela herritarrei euskara ikas dezaten.

Batzeneko ordezkaria kezkatuta azaldu da merkataritza alorrean, paisaia linguistikoari dagokionez, oraindik ere lan handia dagoelako egiteko. Bere esanetan, establezimendu bat ireki aurretik, Euskara Zerbitzuak errotuluak euskaratzeko diru laguntzen informazioa eman beharko lioke interesatuari. Idazkariak erantzun du lehen horrela egiten zela baina orain legea aldatu denez, establezimenduak ireki ondoren egin dezaketela irekiera eskaera eta kasu horretan ezinezkoa dela alde aurretiko informazioa ematea.

Bagera elkarteko ordezkariak gazteak antzerkira programa urte osoan eskaintzea proposatzen du. Horretarako helduentzako euskarazko antzerki programa baliatzea proposatzen du, alegia, gazteentzat ere erakargarria izan daitekeen antzezlan bat eskaintzea proposatzen du (goizetan eta eskolentzat).

Bestalde hizkuntzari prestigioa ematea oso garrantzitsua dela adierazi du. Ildo horretan, pasa den urtarrean danborradaren aurkezpenean haurrentzat egin zen ekitaldian hitz egin zuen udal ordezkari bakarrak, Festak-eko zinegotziak, gaztelaraz bakarrik egin izana kritikatu du. Lehendakariak erantzun du ezustekoa izan zela, alkateak edota berak parte hartu behar zutela eta azken unean ezin izan zutela bertan izan. EAJko ordezkariak gaineratu du ekitaldi guztia euskaraz izan zela, hitz horiek izan ezik, eta zinegotzi horrek ez duelako nahikoa mailarik euskaraz inprobisatzeko, bat batean atera behar izan zuen eta.

Batzeneko ordezkariak bestalde, "Oporretan euskaraz" eta "Haurrak beti jolasean" ekimenak hausnarketa behar dutela dio. Zenbait eskolatan ekimen hauek euskara indartzeko eta sendotzeko erabiltzen dira, curriculumaren osagarri gisa, eta ez dute beharbada hasiera batean zuten filosofia edo helburua, alegia, euskal hiztunen erabilera areagotzeko ekintzak izatea alegia. Azkenik aipatu du Euskara Zerbitzuak bere gain hartzen dituen zenbait ekintza beste sailek hartu beharko lituzketela.

Eta horrela, bilera bukatutzat eman da 20:30ean.